

KANALAK:

Gure enpresak balorezko proposamena modu argi eta koherentean komunikatuko du, euskal kultura, kontsumo arduratsua eta balio etikoak oinarri hartuta. Horretarako, batez ere kanal digitalak erabiliko dira. Merkatu-segmentu nagusiak euskal musika entzuten duten pertsonak eta sinesmen sozial eta politikoekin konprometitutako erabiltzaileak izango dira. Tokiko eragile eta artistekin lankidetzak sustatuz, mezua modu hurbil eta fidagarrian zabalduko da.

Gainera, sare sozialen bitartez gure proiektu zabalduko dugu. Bi kontu izango ditugu: bat instagramean (oihartzun) eta tik token (oihartzun), honek lagunduko digu publiko gazte batera iristen eta ezagutzera emateko. Instagramean hainbat ekimen egingo ditugu jendeari bultzatzeko gure produktua kontsumitzeko, adibidez: gure lehenengo festibalerako zozketa bat egingo dugu, gure festibalaren kartela igoko dugu eta jendea kartela eta gure publikazioa bere historian argitaratuko ditu zozketan parte hartzeko eta aukera izateko zozketaren sarrerak irabazteko. Geroz eta jende gehiago etiketatzerakoan iruzkinetan geroz eta aukera gehiago sarrerak irabazteko. Horrela iruditzen zaigu, modu oso sinplea baina super eraginkorra. Ondoren, tik token gure podcasten zatiak igoko gentiuzke, zati deigarrienak jendea erakartzeko eta beti deskripzioak igota. Modu horrekin, ikusita dago TikTok ospe asko hartzen duela eta jendeari gustatuko litzaioke.

Sare sozialen erabileraz gain, aplikazioa ezagutarazteko aurrez aurreko eta komunitate-oinarritutako kanalak erabiliko dira, hala nola musika jaialdiak, kontzertuak, gaztetxeak eta kultur guneak, publikoarekin harreman zuzena izatea funtsezkotzat hartuta. Artistekin egindako lankidetzek zabalkunde organikoa ahalbidetuko dute, haien sare eta jarraitzaileen bidez.

Era berean, elkarte kulturalekin, hezkuntza-zentroekin, irati libreekin eta komunikabide alternatiboekin akordioak bilatuko dira, proiektuaren balioekin bat datozen espazioetan presentzia indartzeko. Kanal horiek osagarri gisa ulertzen dira, publiko gazte eta kritikoarengana iristeko. Azkenik, komunitate kultural eta gazteen barruan sortzen den ahoz ahoko zabalkundea estrategikotzat jotzen da, aplikazioaren nortasuna sendotzeko eta hazkunde iraunkorra bermatzeko.